



1961eko galarrena

Aita Guria ontzia atezuan

Anton Abaroa Arteagabeitia
Itzulpena: Gabriel Piedra

Argazkia: KIŊUKA

Idazki labur honegaz nire asmoa ez da ezela tragedia helenikorik kontatzea; baina, pasadizo ha gomutan josita geratu jatan ezker, orain ba, hainbeste denbora pasau eta gero, nire helburua da, barriro hona ekartzea gure harako odisea txiki eta berezi ha.

Ondo akordaten naz, orduan sasoiak Lekeitioko baporetako mutiltxiki gazteenetako bat nintzala, hile gitxi batzuk lehenago nengoan-eta Aita Gurian hasita beharrean.

1961eko uda haretan 13 urte besterik ez neukan eta lehenengoa neban itsasoan, baxurako txalupa baten, ze etxeko motortxikinean baneroiazan eginda uda bat baino gehiago; horregaz batera eskolara be joan behar izaten nebala, eta berori be, ahal nebanean.

Hegaluzearen kosterea beste urte batzuetakoen modukoa zan, eguraldi on zein txarrekin, eta arraina atrapau be, ondo, nahiz eta gure kasuan ez horren ugari; ea!, gure bapora txikiena eta zaharrena izanda, ezin lehia han-

dirik egin besteei. Itsasontzia zan 28 bat tonakoa, Erregistro Gordina, 15 m baino gehitxoago luze (eslorea), 3,90 m zabal (erruna) eta eukan diesel motorra, 3 zilindroko Unanue bat, Clup markakoa eta 75 HPduna. 25 urte eukazan; benetan, ez asko, baina ondo jagon barik eta normala baino hondatuago egoan. Berton Lekeition egin zan, Pedro Eigurenen ontziolan, Gerra Zibilaren sasoiak.

Ganera, guk ezin genduan kañabereagaz, karnata biziagaz, arrantzan egin, ze aspalditxotik matxuratuta, zerbitzuz kanpo, egoazan barruan geunkazan haztegi edo biberu bien ur-punpak, eta denbora askoan konpondu barik. Orduan ba, kazan bakarrik genbilzan, eta ganera, ezta alasean arrantzan egiteko lain tripulazinarik be.

Orduantxe egindako bapor barri batzuk egoazan; horreek baeukezan irrati-emisoreak, arrainak detektatzeko ekosondak, guk orduan goniometroak deitzen eutsegun norabidezko

hargailuak, benetan halakoak izan ez arren, eta beste hobekuntza batzuk. Ostera, Aita Guriak ez eukan holako ezer. Irrati bat besterik ez, hartzaile hutsa, emisore bakoa.

Zubian, aitatutako irratiagaz aparte, konpas edo itsasorratz magnetiko bat, zaharra be zaharra, purrustilekin kaxola barruan, eta patroiak samatik esegita eukan erlojua besterik ez egoan. Horrek orain gauza arrunta badirudi be, garrantzi handia eukan, ze egunean zehar norabide desbardineta ibilitako miliak kalkulatzeko erabiltzen zan, buruz egiten zan zinematikaren bitartez, horretara kokapena nahikoa ondo jakin ahal izateko. Egiten ebezan okerrak ez ziran handiak; baekien non egoan itsasontzia, lehorra 100 miliatik gora (180 bat km) egonda be; baina danak be ez ziran Gregorioren besteko onak.

Tripulazinoa bederatzi gizonek osatzen genduan, neu tartean, neu be halakotzat hartu baneintean. Honako honeek:

Gregorio Goenaga, patroia, gizon berezia, ogibide honetan urte asko eginikoa eta arrantzale nabarmena, baita tematia be. Orduan sasoiari uste genduan adinagaitik edo mutilzarra zalako zala.

Motoristea zan, Juan Uribarren; gaztea, sendoa eta zeregin horretarako habila; 37 bat urte eukazan.

Geure aita, Antonio Abaroa, 52 urte; sukaldari be jarduten eban.

José Mari Zugadi eta Fausto Markes; honek aitaren adinekoak gitxi gorabehera. Gero egoazan: Jesús Murelaga, hanka bat falta ebana, eta Domingo Goenaga, miopia itzela eukan eta ez eban ia ezer ikusten; biok, izan barik be, zahar-itxura handia eukien. Ignacio Zugadi, Jose Mariren anaia, zaharrena zan, baina artean 62 urte egin barik. Aitita esaten eutsagun; gero, neu, Anton Abaroa, adinik bakoa.

Portuan 50 bat kintal hegaluze deskargau eta egun bateko atsedena eginda, garagarri-laren 8an, zapatuz, eguerdi aldirian, ostera be itsasora atunetan, Kilin-kalako moilatik urtenda. Eguzkia egoan, eta haize apur bat, Iparra (NE), agilloi pixkat be bai, askorik be behar izan ez arren Aita Guria mugitzeko.

Ronpeolasaren paretik pasau eta segidan, etxean jandako dilistak tripan gili-gili egiten hasita neukazan. Ez eustan ezelako graziarik egiten baporeko gizonen aurrean mareatzeak. Inguruan ikuslerik ez baegoan, ez jatan ardura handia arrainei jaten emotea.

Bazkalosteko lo-kukutxoia egin aurretik, egiterik egoanean, afaritarako gauzak erdi prest ixten ziran. Orduan, aítak esan eustan ze patata-baldekada bat igon neiala atzeko arrantxotik, jaki-tokia edo holako zeozer zanetik; zer egoan han hatsa!, edo txarragoa! Neure kolkorako pentsau neban:

- Ai ene!- orain hemen behean dagoan hatsagaz, zorabiotu egingo naiz.

Jaistekeran laprast egin neban, ia beti lez; argia ez ebilen. Bapora sugelandarea lez mobiduten zan. Baldea egurrezkoa zanez, ostiaren pisua eukan, eta tamainuz be, ia neure beste-koa. Lur hartzekeran soster egin neban gauza gogorren bategaz, baina han ilunetan ezin izan neban ikusi zer zan. Ahalegindu nintzan etengailua topauten eta, sikan be, oraingoan argia biztu egin zan, ze, esan dodan moduan, gitxitan biztuten zan.

Emon eustan ikaregaz, sentidu be ez neban egin bekokiko tronpiloa, eta dilistak lasai geratu ziran euren lekuan, bao orduan behi-

nean. Gero be, baldea kapelatztat eta tronpiloa apaingarri, han nengoan ni, beheanganeari musuka eta, aldi berean, gorputz bako gorputz-atal bati.

- Errekoño!, ainkia gixon barik!

Hiru bat segundo egingo nebazan usain txarreko txarrikorta haretan, txilioka:

- ¡Ainkia, ainkia!


- Ez eustan emon astirik ezta sukaldera ailegauteko be, ze orduan, ikusi, izarrak ikusi nebazan, zorioneko postozoko hankearen jau-beak emon eustan matarlakoagaz; orduantxe konturatu nintzan, Jesus oinez ebilenean zergaitik entzuten zan zaratatxo bat. Nik, bai, ikusten neban koxoka ebilela, baina ez neban imajinau be egin ordezkua eukala ipinita. Baten batzuek barre be egin eben. Amorru handia eta ezintasuna sentidu nebazan. Nahi neban gauza bakarria zan, portura itzuli, ezinezkoa zala jakin arren. Matarlakoak belarrian eragin eustan txistu-hots harek zorabioak berak baino gehiago iraun eustan.

Arratsalderantz haize frantsesa zeozer baretu zan; iluntzera artean norabide berean ibili ginan, NW alderantz gitxi gora behera, eta trabes geratu ginan, Kastro Urdializetik 30-40 bat miliara, ipar alderantz.

Ez zan gure lanbideko itsasontzirik ikusten; merkatalontziren batzuk bakarrik, zein bere noralekurantz, beste barik.

Egun barriaren argi-urratzeagaz batera, norabide desbardinetan ibili ginan atun bila; gehienak laugarren koadranteak (W eta N bitartean). Eguerdi aldean itsasontzi montañas (kantabiar) batzuk eta euskaldunen bat edo beste topau genduzan; amarrekoak (ertainak) deritxen hegalaburrak egoazan leku batera ailegau ginan eta bertan egin genduan arrainetan danok batera arratsalde guztian. Eguraldia bera be nahikoa ona izan zan eta arrantzua be bai, 10-12 bat kintal. Gaua etorri zanean, trabes geratu beharkoan, sarritan egiten genduan lez, NWrantz abiau ginan. Patroiak esan euskun ze, behin, norabide horretan, pare bat orduan, arrantzu ona egin ebela; orduan, 02:00ak arte gitxi gorabehera nabegau genduan, topau nahi genduzan baporak handixerik ebiltzalako, eta alkarregaz geratu ginan albea egin arte.

Egun zoragarria argitu zan eta itsasontzi batzuk alkarregaz batera ibili ginan beharrean egun guztian; arrantzua aurreko egunekoaren antzekoa izan zan. Arratsalde inguruan, taldetik aparte ordurako, atunontzi bretoi ba-



Anton Abaroa



Fausto Markes



Anton Abaroa Arteagabeitia



Aita Guria arrantzontzia

tzuk topau genduzan, txikiagoak; guk balandruak esaten eutsegun, ze belan ibiltzen ziran arrainetan, kazan. Gaua ailegau zanean jitoan geratu ginan eurekin batera. Gure barruko gizonak euren barriketaldian ebiltzan, ia beti lez. Ni ezin neitekean hareekana ezta hurreratu be, autuan ebiltzanean, ze artean ez nintzan "gizona", "mutiltxikiña" baino.

Urten genduanetik bertatik berbalekua beti bera zan: egueraldia eta meteorologia. Irratiek egun batzuk eroiezan SWko ekatxa iragartzen, baina hainbeste atzeratzean batzuek zalantzak eukezan egia ete zan. Orduan denboran jendea zan, zaharrak gehienetan, ia inoiz be eskolan egon bakoak eta irratiekin fidantza gitxi-gitxi eukenak, eta ez irratiekin bakarrik.

Garagarrilaren 11ko goizaldean oraindino eguraldi ona geunkan. 120 bat millara gengoan, N-rantz, San Vicente eta Ribadesella bitartean.

Goizean goiz hamar-hamabi bat itsasontzi ikusten ziran zerumugan, danak atunzaleak eta portu desbardinetaoak.

Norabide desbardinetan nabegau genduan arrantza-gune nahikoa txiki baten, eta gure arrantzua be eskastxoia izan zan; orduan, arrain gitxi arrantzatzen zala-eta, inguru hare-tako baporak sakabanatzen joan ziran. Arra-

tsaldean bapor bi edo hiru besterik ez ziran ageri, eta urruntzen. Irratitik patroiz batzuk entzuten ziran komentarioak egiten ekatxaren ganean.

Eguraldia zan erabateko kalma zuria, zirro motako goi hodei batzuekin, zeintzuk geroago zirrokumulu eta estratokumulu bihurtuko ziran. Eguzkia zurizka egoan eta hamabost eta hogeitatu gradu bitartean ezkutau zan zerumugan, eta ez zan gerta tartean hodeirik edo mendirik egoalako. Gero eta hurreago etorren ekatx gogorra zan, ze, han egoan lanbro edo gurmeagaitik eta ikusezintasunagaitik, ez ziran asmatu be egiten harek aurrean segurue-nez ekarriko ebazan ingude formako kumuloninboak.

Eguzkiaren koloreagaitik bagenkian bihar be haizea ez zala NEkoa izango. Hori gertatzeko, eguzkiak gorri-gorri ezkutau behar du, lotsatuta balego lez. Eta erakusten eban kolore horizka harek esan nahi euskun ez egoala lotsatuta eta biharamuna etorri aurretik ez zala ezer onik etorriko. Bero sargoria egoan eta ur azaleko kalmea ere gitxitan ikusten zana.

Itsasoa egoan esne-potoa baino kalma zuriagoa eta esan eitekean ze ura orioa zala. Orduan ez nintzan konturatzen, ume bat baino ez nintzan-eta, baina gaur egun badakit itsasoan halako eguraldi-ezaugarriak gertatzen di-

ranean, Kantauri itsasoan egonda, fronte hotz bat hurre dala, eta benetan gogorra izan daitekeala, ez daukona zerikusirik hotzagaz, baina bai galarren-fronte serio be serio bategaz.

1961-07-11ko Meteorologi Zerbitzu Nazionalak, zein sasoi haretan Aire Ministerioaren menpean egoan, zera iragarri eban: Fronte hodeitsua, eta horrek ekatx-euriteak eta haizeboladak ekarriko ditu (...), denporale-arrisku handia egongo da Finisterre inguruan eta gero Kantaurin. Ha aurreikuspena ez zan motz geratu, geratu zan, txatxar.

Geroago Euskal Herrian egin eban azterlan baten arabera, Aemet-ek zera dino: "Irlandaren W-an borraska bat egoala, 1004 mb-koa, 06:00etan datau zana, eta 18:00etan 988 mb-etaraino jausi zala eta merkurioa pilo bat gradu bajatu zala erabatera" (Kontu txarra!).

Bitartean, fronte hotza Kantaurirantz, hau da, geuganantz, hurreratzen etorren. Penintsulatik aire-masa bero-beroa, Afrikakoa, 40ºrainokoa, etorren borraskarantz. Biak alkartu ziranean, barometroak zoratu egin ziren. Eta talka harek eragindako txispeak lehertu eragindako bonbeak eratuko eban, Ziklogenesi Leherkorra deritxana, eta ordu gitxian hainbeste zoritxar eragin eben abiadura

itzeleko haizeak sortu ziran. Orduan denporan ez genkian ezebe Ziklogenesi Leherkorraren ganean, ezta zer zanik be.

Trabes geratu ginan, baina beste batzuetan baino lehenago. Gregorio, patroia, aurreko tostan egoan, bakarrik, zerumugara begira, han urrunean asmau nahian lez iragarritako denporalearen aztarrenen bat.

Ni popan nengoan, sukaldariari afaria banatzen laguntzen. Gauero lez, marmitakoa eta, atzetik, atuna oraelean erreta; afaritako menua ez zan sekula aldatzen. Afaldu ostean kaferik hartzen bazan, goizean sobraurikotik izaten zan. Likorerik-eta be ez, ardaoa bakarrik.

Afaldutakoan, beste batzuetan lez, atzeko estapan batzen ziran euren ohiko barriketarako; luze barik hasi ziran eguraldi txarraren ganean berbetan; noiz ailagauko ete zan, zelakoa izango ete zan, egia ete zan...

Tartera guztiak garbitu eta arrantxau nebazan; gero hareekandik distantzia egoki batera parau nintzan, bertatik botau ez nengien zaunka edo antzeko zerozegaz. Arkada baten geratu nintzan makur-makur eginda, bakotxaren bertsinoak entzuten. Beste ezelako entrenimendurik ez egoanez, egiten zenduan edo isil-isilik lotara edo, bestela, gaueko debaldeko funtzinoa entzuten geratu, zatitxo batera, jakina!, berbalari hareek bitartean ardao-zahatoa hustutzen ebela; hain zuzen be, hasita egoan ekitaldi haretarako pixkat lehenago neuk betetako zahatoa.

Ez eusten kantatzen ixten, eta gitxiago, txistu egiten. “Zarratu”enek esaten eben, hori zala haizeak erakartzen ebazan erreklamua eta nahikotxo txistu egiten ebala haizeak berak gartzietan. Txistu egin ezker, matarlakoa beste barik. Eguzkiak urtetea (*orto*) nahiz sartzean (*ocaso*), baten batek Salbea esaten eban, eta txapela erantzi behar zan eta otoi egin. Deskuiduan txapela erantztea ahaztuten bajatzun, matarlakoa opari.

Gatozen barriketara. Eztabaidan ebiltzan: gengoan lekuan geratu ala komenigarriago ete zan ordu batzuez gauez abantean joatea hegoalderantz (S), lehorrerantz hurreratzu, badaezpadan denporalea ailegauten zan, eta holan kostaldetik hurreago egoteko. Ze inork be ez ekian noiz etorriko zan, edo behintzat horixe zan patrioiek inoena. Gomutan daukat, logikoena ordu batzuez barrurantz nabegatzua izango litzakeala inoen bietako bat geure aita zala. Eretxiak emon ebezanen artean —danak izan zirala uste dot— baegoan bat esan ebana:

- Orain artean denporale guztiak gilapetik pasau jataz, eta honek be bardin egingo dau.

Eta Gregoriok gehitu: Emoten dabizan parteak txarrak dira danak; baina lehen ikusi doguzan balandra horreek ez dira gu baino handiagoak eta, antza, geratu egingo dira. Eta berba gehiago barik esan eban:

- Gabon bijjar arte, berton geratuko gara.

- Ikusi ninduan eta zaunka egin eustan:

- Txo, aide lotara! — eta tximistea lez joan nintzan neure etzalekura, kamañara, beraren aurretik.

Eta holan jo eban patrioak amaitutzat eztabaidea eta bere kamañara joan zan. Gero jakin genduan, gu lehorrean ordurako, balandro guztiak ez zirala etxera heldu, zoritxarrez. Lehen esan dodan moduan bretoiak ziran.

Erropak jantzita joan nintzan lotara, baina bonbatxorik ez galtzerdi barik; batzuetan hollantxerik egiten neban, ze halan ez zan igarten arto-maluten gogortasuna. Orduan sasoiak baporetako koltxoi-azala halakoxeekin, malutekin, egoten zan beteta. Gure itsasontzian, ganera, hori gitxi balitz, euria zanean edo kubiartan ura baegoan, uretako jantziak soinean oheratu behar izaten neban. Ez dinot ura barra-barra jausten zanik, baina Aita Guriaren egurra koitadua ja ez egoan halako beharlekuetarako, eta euria eten barik zanean, ura tantaka baino zeozer ugariago sartzen zan.

Erabiltzen genduan erropea ez zan dendetan edo saltoki handietan erositakoa —orduko denporetan horreek azkanok egon be ez—. Geure amek egiten ebezan, azukre- nahiz arroz-sakuekin, eta aitek edo anaiek egiten eben linazi-orio geruza batzuk emon-emon egin, gero biribilian batu eta likidoagaz ondo buittuten itzi. Prozesu horretan asko berotzen ziran eta sute-arriskua be baegoan. Disgusturen bat be egon da horretxegaitik. Sikatzera-koan be ez egoan eseki beharrik, ze tente geratzen ziran eurak bakar-bakarrik, hain gogor geratzen ziran ze. Txarrena zan botaten eben hatsa, jasanezina, eta pijamatzat halakoa edukita lo egiteko, edo norberak egon behar dau ardo baltzez apur bat buittuta, edo 13 urte eduki.

Itsasoan esperientzia handirik euki ez arren, zeozerk inostan ha gaua ez zala izango besteen modukoa. Ez dakit zelan azaldu, baina sentsazio arraro haregaz akordatzen naizenean, gauza ez hain atsegin bat sentitzen dot, ezezagaz inoiz sentidu ez dodana. Seguruenez, konturatu be egin barik neuk neukan bildurra



Gregorio Goenaga



Juan Uribarren



Ignacio Zugadi

izango zan. Baita banekian be, itsasoa haserretzen zanean, malo! eta ez egoala gauza askorik haregaz konparau eitekeanik, edo bapez, nik ezagutzen nebanik.

Burura etortzen jatazan amaren eta anai-arreben gomutea, denbora luzean ikusi ez banitu lez, eta hiru egun besterik ez ziran eura-kin egon nintzanetik; pentsatzen neban, han egongo zirala, etxean, eurei ezelan be burutik pasatu barik nik une hareetan bizi nebazan larritasunak. Lagunak be izan nebazan gomutan, zelako bizipenak kontau neikoezan ikusi neizanean?

Ezin neban aitaren kamañea ikusi, neuk neuretik urten ezean, eta neure buruari itauntzen neutsan, lo ete egoan ala bildur zan. Alderdi horretatik ondo ezagutzen neban aita. Sarri egonda gengoan alkarregaz itsasoan etxeko motortxikian, eta hor be inoiz pasau dogu ikaratxo bat edo beste. Horretara ba, horreek pentsamenduok eta beste batzuk hausnartuagaz batera, denporea aurrera joan zan. Gau haretan betiko orduan baino nahikoa beranduago joan ziran lotara; azkanak, Juan eta geure aita.

Ekin batera, ekin bestera, baina ezin loak hartu; burua kamañatik kanpora aterata, gizonen banan-banan begiratzen neutsen eta konturatu nintzan hiru edo lau neure antzera ebiltzala, euren buruek almoadetatik zirkinik be egin ez arren. Beste guztiak zurrustadaka egoazan, konpasa ondo jagonda. "Orkestina" bitxi horko zuzendaria Gregorio, patroia, zan, zurrustadarik zaratsuenak berak egiten ebazan-eta. Beti izan naiz lo gitxikoa, eta holakoxe gauzak ikusten nebazan.

Gaueko hamabiak aldera, Juanek ontzi-bizkarrera, kubiartara, igon eban eta segiduan atzetik, gure aitak. Ez egoan iretargirik, baina sartaldean zerumugako beste guztia baino ilunago egoan, tximista askogaz. Baxu berba egin arren, nahikoa argi entzun ahal izan neutsen, eta inoen, behin eta barrero norabidea aldatzen ebilen haize epel ha ez zala normal-normala be, hori gertatzen zala ekatxa hasi aurretik. Handik gitxira lotokira bajatu ziran eta bakotxa bere kamañan sartu zan.

Handik zati batera, neuk be neuretik salto egin eta ontzi-bizkarrera igon neban, txisa egiten baninoia lez, eta pentsatzen neban: ba egunez txistu egiten ibili bada eta ikusita eguraldiaren itxurea, zaharrek txistuaren eta haizearen ganean inoenagaz akordatzen nintzan. Halako pentsatzeko moduekin bape bat ez

banentorren be, itsaso koipe itxurako haren, pareta baltz eta dirdaitsu haren, mendebalderantz (W) begiratzeak ikarea baino izu-laborria eragiten eban. Lotokira jaitsi eta lotara egin neban.

Denporatxo bat igarota, ez dakit ziur ordua, baina ordubatak edo apur bat gehiago izango ziran, haizearen txistua entzuten zan, kostilak eta oholta karraska pixkat egiten hasi ziran eta balantzadak be, gero eta gehiago. Orain bai, orain bagenkian piztia noiz ailegautu zan; aurkeztu dau bere burua, hemen dabil. Bape argi ez egoana da, ea hareri eusteko lain bitartekorik ete geunkan.

Ez naiz akordatzen, nor izan zan bizkarrera igon eta kexatzen eta juramentuka jaitsi zana, eta Gregorio artean lo egoanez, berari deitzea pentsau eban:

Gregorio, altxa zaitez ze hemen kontua ezin estuago paratzen doa-eta! Gizon handia izan arren, salto baten jagi zan eta arin-arin-geagaz batera motoristeari esan eutsan:

- Juan, arranka motorra!

Ezin leike esplikau be egin haren haizearen indarra. Lehertu zan moduagatik esan eitekean ze, mundua bertan amaituko zala; ordurako ez egoan horma baltzik, dana zan baltza, dana zan hormea. Haizearen zaratea ez zan txistu handi bat, ze ha zaratea zan trumoi-durundia, hegazkin batzuen turbinak batera lez. Zeru guztiak jausi ziran gure baportxo txiki eta zaharraren ganera.

Abante egin eban patroiak eta gure Aita Guria koitadua mobiduten hasi zan; brankaz jartzen hasi ginanean, itsaso haserreari aurre egin nahirik, ur-masa handi batek indar itzelagaz esetsi eta zapaldu egin ginduzan. Galarren haretan, zubiko ate biak, bizkarreko arkada guztiak, atzeko mastako (*mesana*) ezpeleta eta atzeko paluko zati bat erauzi euskuzan. Sinistu be ezin leikeana da, Gregoriok zelan lortu eban zubian geratzea eta ateen ez. Erabat hondatuta geratu ginan; gure itsasontzi mengela, erdi hondoratuta, azaleratzen ahalegintzen zan eta, denporatxo bat kostau jakon arren, gero be lortu eban barrero azalera urtetea, ur asko geratu jakun barruan, asko be asko.

Ez genkian bapora errementau ete zan ala tanbutxuetatik sartutako ura zan; seguruenez biak. Benetan egia zana zan aurreko lotokia, aitiba eta neu gengoan lekua, beheanganeko panelen azpian, barrura sartutako uraren zaratea entzuten zala. Begiratu egin neutsan, ea bildur-seinalerik sumatzen neutsan. Lasaiago geratu nintzan, ez ebanean zeinu garrantziz-

korik egin, ez behintzat, ikarea iradoki eikean ezer; seguruenez, ez eban egin, neuri ez eragitearen berak eukana baino bildur handiagoa. Goian bizkarrean, txilioak, biraoak eta aieneak. Ez nekian haxe bazan azkana; ondo nekiana zan, ikara handia neukala eta ez nekiala zer egin, ezta zer pentsau be; nik aitari, Inaziori, begiratu besterik ez neban egiten.

Txilio artean, Juan motoristea entzun neban deadarka esaten:

- Au atxikiau izorratuta dago, ekarri baldak!, eta katea bat osatuta gizonak ura baldeekin ataratzen hasi ziran. Zer egin eikien gizon hareek egurrezko balda bigaz, hartzen eban urak baino pisu handiagoa euken balda hareekin?, ezinezkoa izanda, ganera, tente egotea zeozero oratu barik. Halan eta guzti be, neuk be ez dakit zenbat denporan egon zirean. Ziur gizon hareek lehertu arte ahalegindu zirala.

Euria zan bota ahala eta haizeak baldekadaka altxatzen eban itsasoko ura, denporale handietan egiten dauen moduan. Dana zan zaratea, dana ura, eta esperantzak, gitxi edo bapez. Aititik inostan berak gogokoen eban santua san Pedro zala eta beti lagundu izan deutsola egoera gaxetan eta, otoitz egiten bagenduan, oraingoan be bardin egingo eba-la. Hain egoera larri eta etsigarrian egonda, genkian guztia errezaten hasi ginan, asko ez bazan be. Bitartean, besteek borrokan ihardu euren indar guztiakin danon heriotzearen kontra.

Handik gitxira, Fausto Markes lotokira jaitsi zan, eta han gengoan biok, zaharrena eta gazteena, zeintzuek halako inguruabarretan ezin eban ezer be egin, ustezko salbatzaileari otoitz egitea ez bazan, aitarien berbetan.

Eta Faustok hareri esan eutsan:

- Iñazio ez dago zer eginik! Hori entzunda, hozkirria parau jatan, eskuzapalean eurretan be bai; hankak, dardaraka eta nar egiteko modura; baina ez nintzan jausi, balantzadakaitik neure kamañeari oratuta nengoalako.

Aita Guriaren 75 HPak ez ziran nahikoa, ezta baporari itsasorantz amulatuta eusteko be. Haizea SSWetik etorren eta lehorrera ailegauteko norabidea SErantz inguruan izango zan, hau da, erabat trabes. Onena izango zan, itsasontziaren denporaleari popa emonda egotea, zeozelan esatearren. Baina, gengoan posizinoan egonda, erabagi hori hartu ezkerroan, frantziar kostaldean galduko ginan hango ur sakonek irentsita, beste askotan pasau izan dan moduan.



Mater Dolorosa arrantzontzia

Orduan denporan gurea lako baportxoak ez egoazan prestatuta eguraldi zantarra zanetan Frantzia mendebaldeko portuetara heltzeko. Hango urak, kostatik hurre, dzingo txikikoak dira eta bertako portuetara sartzeko, ubide estu samarretan zehar egiten da, eta, ekatxa danean, ubide horreetatik kanpo hatxetan lez lehertzen da itsasoa. Ez geunkan mapa nautikorik, ez beste bitartekorik, non gengoan kokatzeko, ezta halakoak erabiltzeko eza-gutzarik be. Hemen buruko zinematikak ez eukan baliorik, ez geunkan ezta irrati bat be laguntasuna eskatzeko. Bildurra besterik ez geunkan.

Goizeko laurak aldera, gitxi gorabehera, gizonak itxi egin eutsien uraren, haizearen eta gauaren kontra borrokatzeari, eta erabaki eben lotokian babestea geugaz eta bertan itxarotea azken orduari. Oraingo olatuan ete, ala hurrengoan? Batzuk negarrez egoazan, baten bat histeriak jota be baegoan zentzunik bako gauzak esaten.

Aitak besarkatu egin ninduan eta itaundu eustan ea ikararik baneukan; baietz erantzun neutsan, baina ez handirik, guzurra.

Aittittak esan eustan:

- Nahi dok kontatia antxinako kontuak?

- Bai aittitta- nik, zeozer esatearren. Bere burua distraiduteko-edo izango zan, ze han ez ez egoan inor izu-ikaraz ez egoanik.

Halako uanean hain zan gure etsipena ze, alkarri emoten hasi ziran bakotxak bere senideentzako enkarguak, baten bat salbatzekotan be. Akordatzen naiz Juan izan zala lehenengoa esaten:

- Lagunak, zuetariko baten bat salbatzen bada, esan nire andreari sufridu barik joan nintzala, ia segiduan.

Gure aitak be antzeko eskaria egin eban.

Hori esanda, isilik geratu ginan danok, gehienak negarrez. Oinak uretan, lotoki barruan alkar besarkatzen hasi ginan, negar-malkotan agur esateagaz batera. Gero, norberak aukeratutako sokondora joan zan bakotxa, bertan itxaroteko inork ailegau eiten nahi ez ebanari.

Halako baten, gure aitari otu jakon ontzibizkarrera igotea, eta handik gitxira barrura jaitsi zan txilioka:

- Argija ikusten dot, argija ikusten dot!

Barruko gizon batek (ez dot esango nork) zera esan eban:

- Ai ene, Antonio be burutik dago.

Nik banekian aitak, urrunerako, txoriarren besteko ikusmen zorrotza eukana, eta besteek be baekien hori; baina ezin sinistuta egoazan. Gora igoteko esan eutsan Juan, berori zan-eta egokiena; hainbeste ekin egin eutsan ze, gero be igon eban; baina Juanek, ikusmen hain zorrotza ez eukitzeagatik edo une haretako egoera etsigarriagaitik, ez eban ikusi.

- Ekarri metxeruen gasoliñia! eskatu eustan aitak. Esan nahi eban, neuk gordetzen nebana gero gizoni emoteko euren metxeroetarako. Altxa neban neure kamañea, hortxe eukitzen neban-eta gordeta, eta emon neutsan. Bere mantea hartu, gasolinaz buttu eta kubiartara igon eban; ez jakon beste inor jarraitu. Zaitxo batera, Juanek igon eban; seguruenez, pentsauta "eta arrazoia badauko? Bien artean manteari sua emon eta brankako mastan lotu eben. Garren dirdaiak lotokiraino ailegaten ziran eta gure aurpegietara be bai. Fantasma-itxurea geunkan.

Segunduak ezin luzeago egiten jatazan. Handik apur batera, Juanek deadarka esan eban:

- Egija da, ikusten dot, txalupia dago!

Ba, egia be egia; bapora zan, atunetakoa, gurea baino nahikoa handiagoa (geroago ikusiko genduanagaitik), eta, gure argi-seinaleak ikusita, geure barruna etorren, laguntzen, edo behintzat ahal eban guztia egiten ahaleginduko zan.

Goikoak txilioka entzunda, danok igon genduan bizkarrera. Batzuk txilioka eta eskuei eragiten ebiltzan, beste batzuk otoitz egiten, edo antzeko zeozer. Nik neuk, negar eta negar. Une bat izan zan non, etsipenik eta ilunenetik poztasun itzel eta neurribakoenera pasau ginan.

Itsasontziak, geugana geldi-geldika hurre-ratuaz batera, gauzak zelan egoazan aztertzen eban bitartean, egun argi egiten joan zan.

Haizeak ez eukan frontea sartzean ekarren indar itzel ha, oraindino haize handia ebilen arren; itsasoa, barritz, esanezinezko neurriraino harrotu zan; olatuen barruko aldeak metro askokoak ziran eta gailurrak, mendiak lako- xeak. Mater Dolorosa bapora distantzia zuhur batera egoan, 100 metro baino gehitxoagora; orain beste arazo batzuk egoazan. Zer egin eta zelan?

Danak ebiltzan berbetan eta eztabaidaka, baina alkarri entzun, inork bez. Halako inguruabarretan, errazoitzeko unerik egokiena be ez zan; baina, halan edo bestelan, egin, egin behar zan, geure biziak horren menpean egoa- zalako. Gorputz-erdia tanbutxutik kanpora, olatuen tamainuari begira nengoan, tenteldu-

herei laguntasuna eskatzea, kalteak eta beste zeozertzuk konpontzeko, eta orduan behinean itsasontzi-aldaketarik ez egitea. Besteek, danak batera, betondoa tximur eta haserretuta, erabateko desadostasuna erakutsi eben “iluminau” haregaz. Ez neukan urte askorik, baina ondo kargutu nintzan han entzun nebanagaz; zentzunbakokeria zan. Zeintzuk kalte konpondu ahal euskuezan hareek gizonen halako inguruabarretan, ala haizea eta olatuak etozen tokiko ateak zarratzeko giltza eukien?

Han egin behar zana zan, arriskurik gitxien eukan modua topatzea baporetik baporerakoa egiteko, ezelan be erreza izan ez arren arriskurik bako sistema bat aurkitzea denporale ezin gaitzogo haren erdian.

Batelekin egitearena baztertu egin zan, suizidio hutsa izango zan-eta, baita baztertu zan be baporak alkarri atrakau edo bandaz banda paratzea. Hori askoz be txarragoa izango zan, ze alkar apurtuko eben eta danok itoko ginan beste erremediorik barik. Halako itsasoagaz minutu gitxi batzuk egingo genduzan azalean.

Itsasoa haserre be haserre egoan eta olatuek, hareetariko batzuek, estali egiten ginduezan kaladan-kaladan. Danok gengoan bizkarrean, bakotxa ahal ebanari gogor oratuta. Erabagiten genbiltzan bitartean, ikusita denporea aurrera joiala eta danontzako arriskua ez zala gitxitzen, Mater Dolorosako patroia estu parauten hasita egoan, erabagia hartzen horrenbeste atzeratzen ginalako, ze eurek be



Aita Guria. Fabian Artegabeiariaren pintura

ta. Beste baporari begiratu neutsan eta justu orduantxe hasi zan biratzen. Bapor baltz harek geugananzko norabidea hartu eban pal-palean, astiro-astiro. Izena ikusi eutsagun, Nuevo Mater Dolorosa zan, Getariakoa, eta niri, gu-rearen aldean, destruktorea begitandu jatan.

Itsasontzi haren bizkarrean egoazan gizonak kontau nebazan, 15 ziran. Ez egoan nire antzekorik, ezta nire otoitz-lagunaren, aitari- ren, antzekorik be.

Itsasontzia geure barruna etorrela ikustean, gutariko batek esan eban onena izango zala,

Gregorio patroia be urduri-urduri egoan eta, besteak beste, ebilen esaten karterea aurreko lotokian eukala. Batek esan eutsan hori ez zala inongo eragozpena, atxakia baino, eta segiduan neu bialdu ninduan diru-zorroaren bila. Minutu biren buruan baeukan patrikeran.

Gauza bat dala, bestea dala, eta arteetan lehengo moduan gengoan eta, ostera, kon- turik garrantzitsuena egoan konpondu barik: zelan erreskatauko ginduezan. Baina han egoa- zanen idea bikainak ez ziran inondik be ager- tzen. Nahaste- eta urduritasun-uneak ziran.

eragozpen handiak eukiezan nabigatzeko eta itsasontziari egokiro eusteko, galarrenari aurre egin ahal izateko.

Haizearen zarata itzel haren eta olatuen artean ahots indartsu bat entzun zan, zera esaten:

- Asko sentitzen dut, baina ezin dugu gehiago itxaron, honela, ekaizari txopa emanda. Gure kostaldetik urruntzen ari gara eta frantziarrera hurbiltzen; beraz, edo ados jartzen gara edo, bestela, guk amula emango diogu itsasoari.

Zentzuzko hareek berbak entzutekeran — gutzat egin kontuz ultimatum zira— une horretan lasaien egoazan marineruek hartu eben erabagia. Juanek eta gure aitak ebatzi eben aurreko txikot edo tireagaz egingo genduala, hau da, txikot bat zentimetro bi inguru lodi eta berrehun metro edo gehiago luze zana, zein erabilten dan etxadako trainaren brankako sokatzat. Pentsau zan, Mater bera gugandik zentzuzko distantzia batera urreratzea eta gero hareek guri heldu-soka bat botatzea, gero guk horregaz aurreko tirea kobrau, berori geure baporean lotzeko. Gero, alkarrengandik urrundu distantzia ez lar luzera, txikotetik 60 edo 80 bat metro erriateko.

geinkezan baporeko patroiarri. Konforme geratu zan pentsau genduan teknikeagaz.

Mater Dolorosa, geldi-geldika eta olatuen enbatetatik jagonda, gugandik 40 bat metrora gertaratu zan. Denporalearen osagarrien eraginez, gitxi ikusten bazan be, bapor haretako gizon batzuk ikusten genduzan beraren brankan; batzuk, armairuen lakoxeak; gero geu erreskatatzeko balioko eban soka-txikotak prestatzen ebiltzan.

Brankan, hatx baten lakoxe gizon bat zutunik parau zan tosta ganean, beste hiru edo lauk oratuta eukiela, ondo moldau eiten, heldu-sokea indar guztiagaz jaurtitzeko. Hainbesteko indar eta trebetasunez jaurti eban ze, 40 metro baino gehiagotik lehenengo ahalegi-

eta ez bapor biok batera, bakotxa bere aldetik baino. Batzuetan ia alkar jotzen ipintzen ginduzan eta arriskua handia zan; hoba zan larregizko distantzia gorde, gitxiegi egon baino.

Eta holan geratu ginan itsasontzi biok, olatuek zabukatuta, popa emonda gailur itzal hareei eta ahalik eta makina gitxienean, baporak gobernau ahal izateko; biak lotzen ebazan zilbor-heste haregaz eta danak geuk egindako planaren moduan urten eiten esperantzeagaz. Arriskua itzela zan.

Mater-eko ia gizon guztiak poparantz eta ababorreko mandara joan ziran, erreskataterako. Gizon bat brankan geratu zan, atzetik olatu handiren bat etorreanean patroiarri abisua emoteko eta holan horrek haren arabera manio-



Aita Guria. Anton Abaroa Arteagabeteiaren maketa

Lehenengo gizon bat lotuko genduan txikotagaz, eta gero beste bat, eta holan banan-banan, itsasoan zehar arrastauko gindukezan. Alkar lotuten joanda txikota, eta azkenak, bere burua; Juan motoristeak bere burua eskaini eban azkena izateko. Hori egiteko, ez pentsa, ez da bakarrik behar “hareetxek eukitea”, eta koadraduak, ganera.

Horixe zan, antza, emoitzarik fidagarriena ekarri eikigun modu bakarra.

Gehiago luzatu barik eta txilio artean, halkan planteau jakon “problemea” geu salbau

nean ipini eban gure baporaren bizkarrean. Eta gu segiduan hasi ginan heldu-soka meheago haretatik kobratzen, harik eta aurreko tirearen ehun metro baino gehiago barruan euki genduzan arte.

Arteetan, Mater Dolorosak atzerantz egin eban berandu baino lehen, gugandik urruntzeko eta itsasontzi bien artean segurtasun-tarte bat eukiteko, 60-70 bat metrokoa, adostu genduan moduan. Tarte ezin eitekean txikiagoa izan, ze olaturen batek bete-betean heltzen ginduzanean, metro askoan eroaten ginduzan,

brau ahal izateko, eta olatu asko be asko ebilen. Handik denporara jakin izan neban gizon ha zala, eta dala, Jose Maria Ulazia. Fenomenoa morroia.

Gu danok estiborreko mandara joan ginan, eta erabagi zan beste baporera joateko lehengoia neu izango nintzala, oso gaztea nintzalako. Nik neuk ez neban ezelako eragozpenik ipini, ezta egin behar be; ez neban-eta ezer esateko gogorik.

Aitak bigarren bider galdetu eustan:
- Ikararik semea?

- Ez, orain ez lehengo besterik – eta orain-goan egia zan.

- Erantzi botak – esan eustan, eta galtzerdi hutsean geratu nintzan.

Berbetan ebilzan batzuetako batek, ez dakit nork, zera esan eustan:

- Hi trankil, eta egin dzapart, portuan egiten dauan modura.

Karel ganera igon neban, eta oratu ninduen, jausi ez neinten. Eskuak dardaraka, klabua deritxan morapiloa egin eusten gerrian, gero burutik zehar kortxozko salbamendu-flotador handi eta astun bat eta berori geratu zan sokeagaz egin eustien lotura-sortaren ganetik (akatsa mandoa).

Eta aitak esan eustan:

- Salta semea!-, eta dzanga egin neban buruz, bi bider pentsau barik; jakin be ez nekian neure azpitik 4.560 metro egoazala hondoraino. Uretan sartu eta batera konturatu nintzan, neuk be beste akats bat egin nebala: kasu egitea esan eustanari portuan egiten neban modura saltauteko.

Baina, orduan ez gengoan hondarreko is-lako moilan olgetan. Dzanga egiteko hartu neban jarrerea ez zan, ezelan be, egokiena. Buruz behera dzanga egin nebanez, gorputza ur-azpitik geratu jatan eta flotadora, neure oinetatik kanpo, ze berori zan nire gorputza baino askoz zabalagoa, aukerarik emon barik azalera urten eta arnasea hartu ahal izateko. Gizonek egiten eben teinkadearen presinoaren eraginez, klabuak txirrist egin eban flotadorerantz, hau da, ur-azalerantz, eta neure gerritik oinetaraino joan zan, eta han geratu nintzan oin batetik atrapauta.

Gorputz guztia ur-azpian eta buruz behera, orkatila batetik zintzilik, sekulako ahalegin itzelak egiten nebazan neure biriketean airea sartzeko. Baina, ahalaleginak ahalegin, dana alferrik. Gipuzkoarrek indar handiz ebiltzan teinkatzen, Aita Guriakoak ahalik eta bizkorren erriauten ebela. Bitartean, nik egin ahal neban bakarra zan ur kresala iruntsi eta iruntsi eta itxaron, lankideek euren zeregina ondo egin eien, neure bizia salbatzeko ahaleginean.

Nik neuk zenbat eta ahalegin gehiago egin arnasea hartzeko, gero eta ur gehiago barrura, makinatxo bat metroan arrastau behar ninduela uraren azpitik. Orain kontua ez dago silbor-hestearen menpe, nire hamahiru urteko birikek, hainbat minutuan arnasea hartu barik, kresala irunsten egoteko eukien gaitasunarenean baino.

Baten batek pentsau leike, ea zergaitik ezin dan barriro altxa eta hobeto egin? Ba ezin zalako. Ze ez gengoan igerilekuan, bizitza guztian behin bakarrik egiten dan gauza bat dalako; edo hoba, sekula ez izatea. Ez genbiltzalako olgetan eta galarren izugarri bat egoalako, gizonik indartsu eta azarriena be euli bustia baino ezebezago, andrakotxo bat, bihurtzen dauelako.

Bitartean, itsasontzi bietan han ebiltzan batzuek kobratzen eta besteak erriauten, nire sufrimenduen barririk barik, nahiz eta seguruez imajinauko eben. Luze barik konturatu ziran mutila ez zala azalera agertzen. Gero esan eusten baten batek esan ebala:

- Jaregin egin da-; beste batzuei, ostera, begitandu jaken flotagailua geldigeldika hondoratzen joala eta zeozer egoala bertatik dindilizka, eta hori mutila besterik ezin zala izan.

Nire baporekoak urduri-urduri parau ziran konturatu ziran ez nintzala azalean agertzen. Gizonetako bat, geldirik ezin egon-edo, erriauten ebiltzan sokearen txiringolen ganetik igaro zan, oinean bildu jakon eta katigatuta geratu zan, eta, behin-behinean, eragiketean etenda; horren ondorioz, gure aita desespe-
rau beharrean. Esan eusten ze jauzi egin ebala haserre bizian, eta txikotetik eta katigautako gizonaren oinetik halako indarragaz teink egin ebala ze, gizona beheanganean zehar jausi eta haren botea aidean joan zala itsasora (ez dot esango nor izan zan gorabeherako gizona, gero be susmo txarrik ez egoteko).

Bitartean, ni ito aginean; min handia egiten jatan ur kresala saman behera sartzean, eta neure buruari galdetzen neutsan, zergaitik ez nintzan lasaitzen eta irunsten segidu. Azken buruan, gertau behar zana gertauko zan eta horregaitik ez neukan zertan txartoago sentidu. Halan egin neban eta geldigeldika konortea galtzen joan nintzan eta, erabat galdu aurretik, halako bake-sentsazio handi bat eta lasaitasun itzela sentidu nebazan. Esanezinekua. Horixe uste dot dala hiltzea. Orduan... uste dot, dagoeneko ni behin hil naizela.

Ordurako, konorte barik, beste aldera ailegaten nengoan, hurrean. Bai gomutatzen naizena da, argi-argi ez bada be, oin batetik esekita barrura jasoten ninduen momentua. Lehenengo, golpe bat jaso neban, neure bizkar aldeagaz eta sorbaldekin ababorreko hegala jota, eta golpeak, ordurarte irunstitako ur guztia gonbitau eragin eustan. Horretxeri

eta gorputza buruz behera eukiteari esker, ur guztiaz hutsitu nintzan, biriketean airea sartu eta konortera etorri. Amesetan lez gauza baltz-baltz bat ikusten neban, zer zan be ezin jakin neikeana, eta esku-mordo bat, danak zabalik eta neugana luzatuta neuri heldu nahian. Mater Dolorosaren popea zan eta hareek eskuak, hegaluze ez horren handia lez barrura sartu ninduen gizon azarri hareenak. Hareen erpekaden marka batzuk geratu jatazan, baina halako inguruabarretan, ama baten laztanenak lakoxeak.

Gero, barku salbatzailearen barruan nengoala, geratzen jatan erropa apurra erantzi neban; baporetik baporerakoan alkandorea eta galtzerdiak galdu nebazan. Praka batzuk ekarri eustezan, paparreraino ailegauten jatazan eta alkandoreak belauak estaltzen eustazan. Aurreko lotokira bajatu ninduen, besteak zelan ailegauten ziran ikusi nahi izan neban, eta be bai ea aita baetorren, baina ez eusten itxi.

Hango mutiltxikia ni baino altuagoa zan, nik baino urte bi inguru gehiago be eukiko eban; momentuz neugaz geratu zan. Florentino Saizabal jakon izena, eta oraindino izatea espero dot. Manta bat eta txokolate-tableta erdi bat emon eustazan. Ez nintzan gose, bai hotz eta bildur, baina oraingoan gure aitagaitik gehiago.

Ni manteari gogor oratuta, berbetan egon ginan, denporalearen eta geure beste kontu batzuen ganean, alkar ezagutzen hasteko. Baita esan eustan be, ikusita ur-azalera arnasea hartzen urteten ez nebala, pentsau ebela soltau egin nintzala.

Handik apur batera Florentino lotokitik urten eta popara joan zan ea zeozertan lagundu ahal eban. Neuk be eskilaretan gora igon neban bizkarrera, txokolate-tabletatik geratzen zanari haginka eta haginka; burua tanbutxutik atara eta berorreri gogor helduta geratu nintzan, erreskatatzeko eragiketeari begi-begira, ea nire kasuan baino arazo gitxiagoaz egiten baeben.

Hurrengo salbamentuagaz hasi aurretik, Materreko patroiak txilioka, ze horixe zan zeozer entzun ahal izateko modu bakarra, Aita Guriakoei iradoki eutsen, lagateko alde batera flotagailu arraioari eta paparrean lotzeko, beste tramankuluren bat kasu horretarako ego-kiagoa.

Aitak kontau eustanaren arabera, Aita Guriari erabagi zan, itsasontziz aldatuko zan hurrengo aitita bera izango zala. Baina horrek,

nire urpeko bidaia gorabeheratsua ikusita, esan eban ze berak ez eukala holako gauzeta-rako adin egokirik eta hoba ebala egoan lekuan geratzea eta, besterik ezean, baporaren hala-beharrari jarraituko utsola. Eskuetan eukan bere atabaka eta ez eban ixten ezta bera sal-batzekoan be.

Atabaka da egurrezko kutxa bat, atzera eta aurrera eragiten jakon estalkiduna, 35x20 zentimetrokoa, gitxi gorabehera, eta, orduan sasoian behinik behin, marinel guztiok eukiten genduan bakotzak berea, norberaren apariorak eta eurok prestatzeko tresneria gordetzeko. Dirua eta beste gauza txikiago batzuk gordetzeko be erabilten zan. Ez eban soltau nahi, ze bertan eukazan bere aurrezkitxoak, mila peze-ta ziran, berak esanda. Bildurraz aparte, esan leike ze haren ondasunek be baeukiela zerikusirik halako erabagia hartzeko. Horreek ziran aitita onkote harek ipintzen ebazan atxakiak uretara jauzi ez egiteko.

Orduan ba, erabagi eben Domingo izatea salto egiten hurrengo eta geroago konponduko ebela aittitta Inaziorena. Haren baporaldaketa egiteko prestaketak nahikoa bizkor egin ziran. Soka batzuekin gerriko baten modukoa egin eutsien papar-bueltan eta gero aurreko tirearen txiringola lotu eutsien.

Domingok karel ganera igon eban eta, Mater Dolorosarainoko txikotari ahalik eta gogorren oratuta, salto egin eban uretara, tente. Eta hasi ziran alde bietakoak, kobratzen, batzuk, eta erriauten, besteak, neugaz egin eben moduan. Haren zeharkaldia ez zan, inondik be, paseoa izan, baina, batetik bestera joiala, lantzean behin burua azalera aterata ikusten jakon eta arnasea hartu ahal eban, itsaso irakin haren golpe eder batzuk jaso behar izan arren.

Niri itsasoak galtzerdiak eta alkandorea kendu eustazan, baina ez golpe askorik emon, ze haren azpitik joan nintzan; baina, gauza bitxiak da, Domingok itsasoaren golpeak aurpegian be jaso ebazala eta, halan eta guzti be, betaurrekoak jantzita ailegau zala. Halako gauzak daukaz biziak.

Segiduan prestau zan hirugarrena. Jesus zan, koxua; horrek ordurako desmuntata eukan hankea eta bizkarrean lotuta, aldean eroatke. Bapozet aldatze horretan be ez zan ezer berezirik egon, eta esan eitekean ze gero eta hobeto eta molde hobeagaz egiten ebela; mainea hartzen joikozan. Hemen kasuan zeozer nabarmentzekotan, esan behar da ze Jesus, ailegau beharreko lekura ailegau zanean, Mater

Dolorosako marinelek, bizkarrean hanka bat lotuta ekarren gizon bat ikustekeran, zera komentau ebela: Hemen gizonak zatika zetozek.

Aita Gurian, laugarren salbamendurako, halako duda edo aiko-maikoa egin zan barrukoaren artean; orduan, gure aitak, artean inor ez zala azartzen ikusita, zera argumentau eutsen beste marinelei:

- Saltatzeko, aiko-maikotan bazabilze, lotu estu sokea neuri eta neuk egingo dot—, eta halan egin eben ezelako atzerapen barik. Besteek egin eben moduan, karelera igon eta dzapart egin eban, oinak aurretik. Aita, getariarrek tiratuta, uretatik arrastaka etorren bitartean, ni adi-adi eta begiak zorrotz nengoan, neugana zelan hurreratzen zan begira; begiak busti egiten jatazan emozinoiaren emozinoigaz, jakinda, luze barik besarkatu ahal izango nebala.

Mater Dolorosako patroiak zubiko branka aldeko leihora urten eta jaso barrietako bati galdetu eutsan:

- Aizak Lekitto, hondoratzen ari al da itsasontzia?, hain etsigarria da egoera?— eta harek zera erantzun eutsan:

- Goizaldean, abante emotekeran, itsasoa barrura etorri jakuk eta ur asko sartu, baina ez dauat uste hain larria danik; orain, antza, ez dok horrenbeste sartzen.

Ba nik baneukan ba gogoia esateko, hori ez zala egia, baina ezin neban guzurtau marinel nagusi bat neu mutiltxikia izanda. Nik pentsauten dot esan ebala, Aita Gurian baino lasaiago eta seguruago sentitzen zalako eta bera artean ez egoalako han. Mihina baketan itxi eta kome-nigarriago eretxi neutsan isilik geratzeari.

Ha entzundakoan, patroiak, apur baten gogoeta eginda, zera esan eutsen sokatik tiraka ebiltzan gizoni, eurok ziran-eta beragandik hurreen egozananak:

- Arrisku handia degu olaturen batek norbait itsasora atera diezagun, edo itsasontzi-aldaketan gizonen bat galdu dezagun; hondora ez badoa eta ur gehiago sartzen ez bazaio...

Ezker-eskuma eragin eutsan buruari, bere desadostasuna adierazoten lez, eta komentarioren bat egin eutsen bere marinelei, nik ezin entzun izan nebana. Berari begira nengoala konturatu zan eta esan eustan:

- Nola hago, mutil?

- Oso ondo eta pozik, eta eskerrik asko-erantzun neutsan; berak barre txiki moduko bat egin eban buruagaz baietz esateaz batera, eta

- Ez horregatik- erantzun eban. Nahiz eta, egia esan, neke-neke eginda nengoan, adore barik, ebakuntza kirurgiko batetik orduantxe urten baneu lez eta kostau egingo balitxakit..., lekittar berbetan esango litzateke: -Ezin konortera etorritta-. Normala!, oraindiño denpora gitxi zan estualdi larri be larri batetik urtenda nengoana. Baina, pentsau eikeana baino lasaiago nengoan. Eta, lehen esan dodan moduan, gure baporaren aldean, itsasontzi polita zan eta bertan barruan egote hutsak lasaitasuna emoten eban.

Gure aita be barrura ekarri ebenean, beragana joan nintzan arin-aringa eta besarkada estu baten batu ginan biok. Eta normala zan pozaren pozez esan neutsan:

- Aitta, denporale guztiak ez dira gilapetik pasauten. Honek ganetik be pasau gaitu, neu batez be.

Mater Dolorosako irratan txilioka berbetan entzuten genduzan beste baporetako patroiak laguntasuna eskatzen, ezinezko ikusten eben-eta hari itsasoari aurre egin ahal izatea, eta batzuk, hondora joiazalako. Batzuk negarintzirika inoen gizonak ikusten ebezala uretan, baina baporak ez ziran gauza bizkor eta ondo maniobrau eta hareetariko batengana gerturatzeko. Hain zan handia olatuek euken indarra... eta hain txikia gizonena...

Zubitik, Jose Mari patroiak Aita Guriakoei txilioka, ze bestelan ezin zan ezer entzun, bere gizoni esan eutsen gauza bera esan eutsen, eta Juanen erantzuna horrerri:

- Ez, hasi garan ezker, egin daigun danok! - Hori argi-argi aditu jakon, baina beste gauza asko ez ziran entzuten eguraldi zantarraren zarateagaitik. Besoekin seinaleak egiteko modugaitik igartzen jakon oso haserre egoala; bera izan zan bere burua eskaini ebana barruan azkanen eta bakarrik geratzeko, edozer gerta lekion arriskuagaz, eta beste inor euki barik berari eusteko.

Mater Dolorosako patroiarik ikaragarri kostauko jakon, Juan motoristeari buruan sartzea ez egiela uretara saltau eta bere baporean geratzeko.

Han segidu eben alkarri eretxi desbardinak emoten.

Handik zati eder batera, ezinezkoa begitandu arren, getariarrak Juanen urduritasuna baretzea lortu eban. Bien artean akordu batera heltzea jadetsi eben, arzoizotuz, zeozelan dei-

tzearren, eta hori zan, Mater Dolorosak gertutik jagongo ebala Aita Guria eta batera egingo geuntsala aurre galarrenari, eta arrisku-susmorik txikienagaz, bapoz aldatzeari ekingo geuntsala, ze orain bagenkian zelan egin.

Egunean zehar bapor biok ibili ginan denporaleari aurre egiten, danbatekoa batetik, danbatekoa bestetik, olatu itzel hareetarantz amulatuta, ze, ganera, esan eikean, gero eta txikiago barik, gero eta handiago etozela.

Sukaldea ez zan biztu. Itsasoaren enbaterkin eta egiten genduzan balantzada handiekin ezinezkoa baino ezinezkoagoa zan ezer egitea. Latak batzuk, ogia eta fruta pixka bat jan genduzan, gizonen euren etxeetatik ekarritakoak. Danok gengoan aurreko lotokian, beno, zubian guardian egozanean —patroia eta gizon bi— eta makinako beste bat izan ezik.

Iluntzean arrastero bat topau genduan, txapazkoa eta handia, pal-palean etorren, denporaleari aurre egiten; Gran Soleko kala-lekuetarantz joian (ez dakit haren izena eta inork ez deust jakin izan esaten, itaundu izan dodan arren, sarri eta leku askotan). Itsasontzi harek esan euskun asturiar kostaldetik 100 millara iparrerantz (N) gengoala, Ribadesellako longitudoan, hau da, abiau ginan lekutik milla gitxi batzuk baino ez genduala aurrera egin.

Lehorrerantz nabegatzen segidu genduan eta iluntzean erabagi zan lau gizonen batera egitea guardia, zubian, badaezpada zer gertau be. Normalena edo ohikoena zan gizon bik egitea guardia; gaur ez da egun normala, anormal-anormala baino.

Itsasoa, antza, ez egoan lehengo besteko gaizto eta abiadura moteltxoan ginoiazan nabegatzen, kostarantz bidea egitean. Gaueko hamabiak inguru izango ziran (orduak gitxi gorabeherakoak dira, ze lehen inork be ez eban eroaten erlojurik itsasora, patroiak izan ezik), euri-zaparrada itzela ekarri eban, nahikotxo iraun ez ezik ezer ikusterik be ixten ez ebana. Handik minutu batzuetara euria atertzen joan zan eta gero eta hobeto ikusi geinken, baina, halan eta guzti be, ezin asmau lankidea.

Ez genduzan ikusten Aita Guriaren nabegazino-argiak; matxuraren bat, akaso, itsasoaren golperen bategaitik? Hondoratu? Normala dan moduan eta egoera larri haretan izan behar dan bizkortasunez, inguru guztia arakatzen hasi ginan. Orain ez zan hain txarto ikusten eta, halan eta guzti be, ezin gure itsasontzi he-

bainduaren aztarrenik topau. Hainbat orduan bila eta bila ibilitakoan, handik alde egin genduan, lehorrerantz.

Ez gengoan lehorretik hain urrun. Itsaso zantarra egoan, baina nabegau leiken, zuhur ibilita. Denborale handi haren indarra ahultzen joian eta unetik unera igartzen zan.

Patroiak zubira deitu eban gure aita, Aita Guriako itsasgizon eta lankideak galdu izanaren lekukotasuna emon eian. Etsipen handiko uneak izan ziran, geure lagunak galdu genduzan. Lur jota gengoan eta ezin sinistuta zer gertatzen ari zan. Aurreko lotokian argiak biztuta egozanean eta inor be ez lo.

Albea zala, ordurako han urrunean sumatzen genduzan kostaldea eta ezagun egiten jakuzan geure euskal mendiak. Hondoko itsasoa egoan oraindino, bagea handia, baina arrisku handi barik itsaso zabalean nabegatzeko.

Goizeko zortziak aldera, kostatik hurre ordurako, Santoñako itsasontzi bat topau genduan. Zortzi edo bederatzi bat metro luze eta gorria; Perrate jakon izena eta bost itsasgizon eukazan, geu atzo egon ginan beste ikaratuta bostak. Ontzi-bizkarrean beirazko bost edo sei txanbil eukiezan hutsik eta prestatuta salbamendu-buiatzat, alaie lotuta, eta motorra gedituta eukien matxuregaitik. Hareen aurpegi zurbil eta itxurabakotuetan islatuta ikusten ziran izu-laborria eta denporalean zehar zelako txarto pasau eben. Ez egoan zertan igarlea izan, agerian egoanagaz kargutzeko.

Hareetariko batek txikot bategaz berunezko plakadun bateria elektriko bat eukan lotuta orkatiletako batera, itsasontzia hondora joatekotan ankilatatzat egin eian, eta hola ahalik eta denpora laburrenean hondoratzeko. Soka lodi bat, atoirako erabiltzen dana, bota geuntsen. Euretariako lauk geure barrura saltau eben, ezelako arrisku barik eta atoian eroan genduan Bermeoko porturaino, berori zan-eta hurreen geunkana.

Goizeko bederatziak aldean sartu ginan lehen aitatu dodan Bermeoko portuan. Jentetza egoan moilan. Atrakalekura gerturatu ginanean, jentea saldoka batu zan baporaren aurrean, ikusminez eta urduri; galdera asko egiten euskuezan, guztiak batera. Ea ikusi genduan halako itsasontzi ha edo ha bestea, eta holan. Beste batzuek ekin eta ekin egiten euskuen negarrez, erantzunak geuk jakin behar bagenduzan lez. Une haretako nahastea zala-eta, han inork ez ekian ezer.

Erresultatzen da ze falta zerala herriko itsa-

sontzi asko be, eta itsasoan jazotzen zanaren barriak be ez ziran bape itxaropentsuak.

Kontuan euki behar da, orduan denporan kaleetan ez egoala telefonorik eta gitxi ziralak halakorik eukien etxeak. Albisteak gehiago joiazan zabaltzen ahotik belarrira, beste edozein modutara baino. Baporen emisorak ez ziran oraingoan modukoak eta, eguneko zein ordu izan edo zein kokapenetan egon, edo entzuten zan txarto edo ezta piperrik be. Lehorrean egozanean barriak portu bakoitzak eukazan ziran, eta eurok be Kofradiak eukazan.

Asko be asko izan ziran txarto pasau eben itsasontziak eta, horregaitik be, ez ziran ibilitako itsaso-zartada bakoitzeko edo ura barrura sartzen zan bakoitzean irratiz emoten horren barri. Aitatu bez. Batailatxoak tabernetarako.

Ezer larririk gertatzen bazan, autuak ezin pribaduak izan, irratiz izan behar eben, edonork entzuteko moduan eta aldrebesten errezak euren helmugara ilegau orduko. Onena zan isiltzea, harik eta leku egokian egon arte halakoen barri emoteko.

Ez egoan salbamentuko zodiakik, ez helikopterorik, ez Txitxi Madalenakorik. Hondora joan behar bazenduan eta inguruan beste inor ez baegoan norberari laguntzeko, guretzat gertariarrak lez, orduan ba, “fin de la fan” hondora eta akabo bertan. Nor etorriko jatzun ba ehun miliatik? Jakin badakigu hainbat itsasontzi eta jente asko galdu izan dirala kostatik hurrehurre edo berbertan be. Gaur egun aukera asko dozu topau zaiezan, edo harrapau, salbau nahiz erreskatau.

Badagoz hamaikatu salbamendu modu desbardin, edozein motatako detektagailuak, ploterrak eta edozein tamainutako GPSak, bi edo hiru txori hainbeste miliatara markatzeko gauza dira radarrak, ezin sinistuteko moduko zehaztasundunak eta azkan-azkan belaualdiakoak. Eta ez aitzearren sateliteetako gailuak, aurkituko leukeenak baita Txindurri Atomikoa bera be Marianetako itsas hobiaren sakonean, 11.000tik gora metroko dzingoan; zerrrende amaituezina izango litzateke.

Orduko haretan geunkazan Haize Larrosa bat, purrustila eta guzti eta ez ondo orekatuta, eta erloju bat, patroiaaren paparretik esekita, Gregoriorik eukan moduan.

Ja Bermeon, Jose Mari Iribar, patroia, eta gure aita Itsas komandantziara eta Kofradiara joan ziran, Aita Guria galdu izanaren barri emoten.

Ziur gengoan danok galdu egin zana eta itsasoan geratu zirana, euren bizi guztian bertan behar eginda gero. Arteetan gu, bie itxaroten, gaur egun be, 52 urte eta gero, oraindino leku berean dagoan frontoiaren aurreko moilan amarratuta.

Jenteak lehorrera saltatzen behartu ninduan. Horreek pertsonok zoragarriro portau ziran gugaz danogaz, neugaz gehienbat. Ni tratau ninduen heroi txiki bat banintz lez; amak lehian ebiltzan neuri erropea eskaintzen, bai euren ostatua, nahiz jatekoak eta danetariko mimoak. Labur esanda, neu errifatzen. Hain erropa gitxigaz eta hain txiki ikusita..., barruko kamiseta tiranteduna, prakak eta espartuzko abarketak, neure neurria baino lau numero handiagoak; ze itsasontzi haretan ez euken nire tamainuko ezer. Alkondarea ekaitzak ohostu eustan. Ni, lotsa-lotsa eginda. Kabanen beharrea ebiltzan neska batzuek nahitaez eroan ninduen, erdi arrastaka, erdi airean, frontoitik bertatik hurre egoan edari-leku batera. Ez dot uste neure bizi guztian orduko beste Coca Colarik edan dodanik, ezta hainbesteko lotsarik pasau be.

Mater Dolorosa egin barria zan, hogei bat metro zan luze eta motorra, Unanue-Duban 150 Hpkoa, eta 5 bibero, arraina bizirik eukiteko.

Eguerdi inguruan popan gengoan jesarri-ta, sukaldariak bazkaritako jatekoa noiz ekarriko zain. Oraintxe balitz lez gomutatzen dot, afaria zan hegaluzeagaz egindako marmitakoa eta, sukaldariari kipulea erre jakonez, egin kontuz kukaratzaz beterik egoala, izan be, kipula-zati baltz hareek, han azalean, hareetxen kokuen antza eukien. Jatekoaren itxurea bildurgarria zan eta, egoera kontuan izanda, gitxik, edo inork bez, geunkan ha jateko gogorik; serio eta burumakur, han gengoan bakoitza bere plateraren aurrean.

Halakoren baten, gizon bat etorri zan bela betean, arin-arina eta txilioka:

Aita Guria Lekeitoria ailegau da!; ailegau da Aita Guria!

Kofradiako mandataria zan albiste ona emoten etorrera, eta haren atzetik patroia eta gure aita etozen, urrats lasaigoekin eta prisa barik, baina belarri batetik besterainoko irribarre banagaz. Geugaz jesarri ziran. Sukaldariak marmitakoa emon eutsen jaten. Geure albo-alboan galdu eta orduan erdirik be ez zala, sorginkeriaz edo, Lekeition, bost lankideak

barruan eukazala geu baizen osorik, agertutako itsasontzi haren ganeko xehetasun batzuk kontau euskuezan.

Aitari itaundu neutsan ea inogaz berba egin eban, etxekoei jakin eragiteko. Erantzun eustan ze Kofradiak emongo ebal horren barri patroia etxean edo, bestela, dei egitekoarenean, gero eurok abisau eien familiei.

Marmitako guztia iruntsi genduan, "kukarata" eta guzti. Ezin ederragoa egoan.

Lasai jan eta gero, amarrak erriau eta Bermeoko portutik urteteko maniobrea egiten hasi ginan. Ronpeolasa pasautakoan Izaroren N-eko bandan hasi ginan, gure senideak be geure besteko pozarren egongo ziralakoan. Zoritxarrez ez zan halan izan. Gure amak, etxera heldu ginanean, esan euskun inork ez ebal errekadurik ez ezelako abisurik emon.

Lekeition, beste portuetan modura, hareetan egunetan ezinegon handia zan nagusi itsas jentearen sendietan. Otoz otoan Aita Guria Lekeition sartu zanean, ezuste handia izan zan, ze zabaldua egoan hondoratu eta dana egin zalakoa.

Bertan ziran senideek lasai arnasa hartu eban eta agerian itxi sentitzen eban poza, baina ez, etxekoak falta ebezan beste senideek. Nahaste ikaragarriko momentua izan zan. Baporeraren begiratu eta begiratu egin arren, ez ginan inondik ageri. Ez egoan inor gehiagorik.

Gu bizi ginan Aita Guria atrakau eban moilearen aurrean eta, handik etxerako tartea handia ez zanez, etxetik ezagutzen ziran bapor barruan egoazanak. Bost egun lehenago itsasoratu ginan moila bera zan, Kilinkalako deitzen eutsaguna (gaur egun mutur hori ez dago).

Aldi berean gu geure etxera gendoan, 115º norabidean eta branka Santa Katalinarrantz.

Gurean txarrena pentsauta egoazan. Ez gengoan besteen artean eta ez eutsen jaramonik egiten batzuek kalean esaten eutseenari: beste bapor handiago eta seguruago batera pasau ginala eta behin honezkero beste porturen baten egongo ginala; baina, gure etxekoek ez eban sinisten, uste eban egia ezkutatzeko edo antzeko zeozergaitik zala eta, zoritxar baten aurrean, euren animoak emoten ahalegintzen ziralakoa.

Ze, oraintsu esan dodan moduan, inork be ez eban gure etxean jakin eragin bizirik gengo-zala, eta bagengoan be izan zan, euren biziak arriskatuz geureak salbau ebezan jente azarri eta adoretuari esker.

Gure etxean ez eban nahi izan moilara jaitsi; oso atsekabetaturik egoazan; gure ama, gainera, mareau be egin zan, Aita Guria geu ez ikustekeran; bildur handia eukan. Nire arreba Ester, ni baino nagusitxoagoa, eta izeko M^a Teresa bera lasaitzen ahalegintzen ziran, eta horretxegaitik, pentsau eban hoba ebal etxean geratu senar-seei itxaroten.

Ronpeolaseko sarrerako barrearen itxurea ez zan ona, ekaitzak itxitako hondoko itsasoaren eraginez, baina ez genduan ezelako arazorik euki.

Gure aitak, herrikoa izanda, ondo ezagutzen eban sartukerea eta patroia lagundu eutsan zeregin horretan, ze bera Jose Mari ordura arte ez zan sekula gure portuan sartu izan. Arratsaldeko ordu biak inguruan sartu ginan, gero be, Lekeition. Nahikoa jente egoan moilan eta eguzkia dirdiratsu; artean, falta ziran bapor batzuk. Horretariko bat, N^a S^a del Socorro, gizon bi gitxiagogaz etorren.

Mater Lekeition inoiz sartubakoa zan eta horretxegaitik jenteak ez eban ezagutzen eta ez eutsan arreta handirik eskaintzen. Moilara gerturatzean, bertan egoazan herritarrek eta senide batzuek orduantxe ezagutu, eta eskuz seinalatzen ginduezan. Hain bizkor ibili ziran gure senide batzuei abisu emoten ze, bapora amarratzen amaitu orduko, baegoazan berorren aurrean.

Lehorrera saltatzekeran, bertan egoazane-kin besarkatu ginan, baina nik ez neukan han egoteko gogo handirik, ama eta anai-arrebak nahi nebazan besarkatu eta etxera joan nintzan zenteilearen andaran.

Mater Dolorosak, minuturik alferrik galdu barik, segidan urten eban portutik Getariarrantz, bardin egiteko euren senideekin be, eta ondo egindako lanak emoten dauen sentsazioaren lasaitasunagaz eta harrotasunagaz.

Etxera ailegau ginanean amak itaundu eustan:

- Hartun zaittuen baporak zelan dauko ixena?

- Mater Dolorosa, ama!, erantzun neutsan.

- Hara!, ikusten dozu?, millagrua izan da.

Erresultatzen da ze, goiz horretan bera Lumentza mendiranzko aldatsean geunkan ortura joan zala eta bide horretako horma baten amabirjina bat egoala horma-konka baten; ba nik ez nekian amabirjina horren izenik, baina bai akordatzen naiz baltzeko jantzita egoala

eta gorantz begira eta negarrez (uste dot ondiñoko bertan dagoala). Eta amak esan eustan:

- Mater Dolorosa jako ixena eta gaur goixian belauniko erregutu dotzat zuek bijjok ekarteko etxera, eta orixe egin dau.

Gure ama ez zan beatea, baina harik eta hil zan egunera arte, 90 urtegaz, seme-alaben ondoan eta sekula kexatu be egin barik inon minik eukanik, inoiz be ez eban pentsau guri jazo jakuna halanbeharra izan zanik. Kontuan izanda, ganera, ailegau ginan eguneko goizean bertan, herrian, galdu egin ginalako zurrumurrak zabaldu zirala.

Itsasontzi biak lotzeko eratu zan zilbor-hes-tea ez zan apurtu bapor-aldaketetan eta esan leike ze horretxegaitik barriro jaiio ginala.

Orain pozik gengoan bakoitza bere etxean, ordukoa egunen baten kontau ahal izateko.

Harrezkero denporatxoa pasau da. Uste dot heldu dala "egunen bat" hori eta orain dala hile batzuk neure buruari esan neutsan:

- Abaroa, kontau egin beharko da ba; itsasontzi bien artean parte izan ginan 24etatik hemeretzi dagoeneko ez dagoz, kontau ahal daben bostetik neu naiz gazteena; orduan ba, pentsatzen dot neuri jagotala egitea, geure ilobek jakin deien benetan zelan izan zan egun haretan jazo zana.

Horra ba, orain kontauta dago.

1961eko uztail edo garagarrilaren 12ko hondamenezko galarrena azken 50 urteetako ekaitzik gogorrena izan zan. Urte batzuk igarotakoan jakin zan ziklogenesi leherkorra zala. Zorigaiztoko ezbehar handia Kantauriko itsastar bizitza guztiarentzat. Lekeition lau izan ziran galdutako gizonak eta ez zan izan gizon gehien galdutako portua.

Lugoko probintzia izan zan zigortuena, hango 34 gizonak galdu eben bizi; gero, Asturias, 23gaz; Kantabria, 12gaz, eta gure lurretan guztira 14 izan ziran euren etxeetara ailegau ez ziranak. Guzti-guztira ba, 83 gizonak galdu eben bizi, eta itsasperatu ziran baporak, 23, kantauriar itsasaldean, Galiziatik eta Frantziako mugaraino.

Hau pasadizoau bene-benetan gertatu zan, neu tartean nintzala han bizi izandakoan. Idatzi dot nabarmendu gura barik. Ahalegindu naiz, uda haretako atunetan gertatu zanaren

ganeko neure pentsamenduak ahalik eta zehatzten emoten. Ikusi ezin izan nebana aitak kontau eustan. Eta urte askoren buruan, ikusi ezin izan nebazan beste gauza batzuk be gomuta eragin deustez Mater Dolorosako hiru mariñelek, hirurak neure moduan bizirik: nire lagun Jose Maria Ulazia, Ramon Iribar, motoristea eta Jose Mari Iribar patrioiaren anaia, eta Florentino Solozabal, tailatxo batzuk handiagoak ziran erropak eta txokolate-tableta erdia emon eustazan mutiltxikia.

(Mater Dolorosako tostartekoen artean, beraren izena bakarrrik nekian: Florentino, eta 52 urte kostau jatan bera aurkitzea, eta neu aurkitu ninduana Jose Mari Ulazia izan zan. Ni askotan ahalegindu nintzan, baina bera, gehiagotan eta hobeto).

-Eskerrik asko bihotzez Mater Dolorosako gizon guztiei-

Juan Uribarren Sosua (girringolak eukazala frogatu ebana), Aita Guriako orduko motoristea, 2017an hil zan Lekeition.

Honako hau baita idatzi dot be, egun haretan Kantauri itsasoan egon ginan danon moduan Galarrenaren kontra borrokatzen ibili ziran eta orain gure artean ez dagozan 83 gizon haren gomutagarri. Hareek ez eben gure suertea euki, ez beste lankide batzuk eurak infernu haretatik atera ahal izateko lain hurre be.



Zutunik ezkerretik eskumara: Florentino Saizabal, Mater Dolorosako "mutiltxikiña", Jose Mari Ulazia eta Antton Abaroa, jezarrita Iribar Mater Dolorosako motoristea.


LA GACETA DEL NORTE

APARTADO 33 HENAO 8 - BILBAO VIERNES 14 JULIO 1961



Así quedó el "Ilyushin 18"

TREINTA hombres desaparecidos y NUEVE barcos hundidos, primer balance de la galerna en el CANTABRICO



El temporal empezó a amainar anoche. Datos imprecisos sobre la situación de muchos buques por avería en emisora.



El temible temporal de mar y viento...



A este ya del temporal, uno de los pesqueros bermeanos parece desmenuzarse en la dársena de Arca. (Foto: Carlos Mola)

LOCAL Y REGIONAL

EL TEMIBLE TEMPORAL DE MAR Y VIENTO, HIZO ZOZOBRAR A NUMEROSOS BARCOS PESQUEROS CON BASES EN EL CANTABRICO



Varios tripulantes arrastrados por grandes olas que barrían las cubiertas, cayeron al mar, siendo salvados por sus compañeros. Anoche seguía ignorándose el paradero de numerosos barcos pesqueros.

En otros barcos que integran la flota pesquera de Bermeo estaban en el puerto. En algunos otros dijeron que fueron los barcos de pesca, se encontraban en el puerto. También se informó en otros momentos que los pesqueros que fueron los barcos la base de Bermeo y se les dijo que fueron los "barcos" que estaban en el puerto de Arca.

ROMA (LUIS DE LA BARGA) Hoy Enciclopedia Social

El "Midas" y el "Tiro"

LA GACETA DEL NORTE 14-7-61

Odisea de los tripulantes del "Aita Guria"

A las once de la mañana de ayer entró en el puerto de Bermeo el pesquero "Nuevo Mater Dolorosa", llevando a bordo a cuatro tripulantes del también pesquero "Aita Guria", de la matrícula de Lequeitio y que fueron recogidos a la altura de Ribadesella a una 80 millas de distancia de la costa.

En la prestación de auxilios a los pescadores lequeitianos por los bermeanos se dio el hecho singular de que los nueve tripulantes del "Aita Guria", cinco de ellos se negaron a abandonar el barco y siguieron gobernándolo luchando con enorme denuedo con el temporal, habiendo momentos en que todo parecía perdido por la fuerza del oleaje, que obligaba a bailar a la pequeña embarcación, manteniéndose a flote de milagro.

Los del "Nuevo Mater Dolorosa" perdieron de vista al "Aita Guria" temiendo por su suerte, después de estar situados a la capa durante muchas horas aguantando el ventarrón, el oleaje y rachas de aguaceros que hacía imposible toda visibilidad.

En situación de gran incertidumbre, el "Nuevo Mater Dolorosa" siguió capeando el temporal y cuando se hallaba el barco a la altura de Arminza encontró a otro barco pesquero de la matrícula de Santoña llamado "Perrates" el cual sufría averías en la maquinaria y en la obra muerta de la embarcación.

Le echaron unos cabos y se logró arrastrar el barco hasta Bermeo, donde hicieron la entrada a las once de la mañana. En el "Perrates" venían seis hombres de otro pesquero que zozobró.

Los de "Tita Guria" (sic) arribaron sin otras novedades

Al filo de las doce y media del mediodía se tuvieron noticias de Lequeitio de que el buque "Aita Guria" había logrado ganar el puerto, dando por finalizada la durísima empresa de luchar con el mar, llevando a bordo a los cinco hombres, convertidos en héroes, como otros tantos que han sabido luchar y vencer en este nuevo capítulo trágico de pérdida de vidas y de barcos.

La flotilla de barcos de Bermeo se había desplazado en su casi totalidad a las aguas de Vigo, La Coruña, Ribadeo, etc., y según nos dijeron se encontraban en viaje de retorno en vista del temporal, esperando llegar a los muelles bermeanos a partir del anochecer de ayer, siendo el número de los que navegaban alrededor de ochenta.

EL CORREO Español 14-7-1961

"Aita Guria"

A las siete de la mañana el miércoles el "Aita Guria", de 29 toneladas de arqueo, construido el año 1936 en Lequeitio y propiedad de armadores de dicha localidad, comenzó a acusar los efectos de la galerna. Hacía agua. Demandó socorro a unas 60 millas de Ribadesella. Acudió el "Nuevo Mater Dolorosa" y cuatro tripulantes del "Aita Guria" pasaron a él, que llegó a Bermeo a las once de la mañana de ayer, remolcando, al mismo tiempo, a la embarcación "Perrete" de Santoña. Entretanto el "Aita Guria", con los restantes cinco tripulantes que permanecieron a bordo, se mantuvo a la capa primero, y luego puso rumbo a puerto, entrando en Lequeitio también ayer a la mañana. Una proeza, dada la categoría del barco, la importancia de la galerna y las condiciones en que hubieron de navegar, haciendo agua y achicando constantemente.

Dos muertos

A última hora, nos informan de Lequeitio, según noticias recibidas a través de emisoras radiocosteras, la embarcación de aquella matrícula "Playa de Carraspio" conduce a remolque al pesquero "Nuestra Señora del Socorro", también de Lequeitio.

El "Nuestra Señora del Socorro" —de 33 toneladas de arqueo, construido el año 1949 en aquel puerto— tiene dos palas de su hélice rotas. Y, al parecer, viene con dos tripulantes muertos a consecuencia del temporal.

Ambas embarcaciones son esperadas alrededor de las dos de la madrugada de hoy, viernes. Lequeitio ofrece un ambiente de profunda consternación y todo el pueblo está pendiente de la arribada de dichas embarcaciones.